1. zbk.

# kotarro

2007ko jaiak — debaldeko alea

## Lizarran kantuz

Bertze hirietan (Donostia, Iruñea, Baiona) bezala, Garean-ek Lizarran ere martxan jarriko du.

LIZARRAN KANTUZ, euskal abestien giroan lagunekin euskeraz solasteko aukera. Gure asmoa, hilabetean behin eguerdi aldera elkartu eta, musika eta umore ona lagun, pare bat orduz, Lizarrako kaleetan kantatzen eta mintzatzen ibiltzea da.

Udazkenean hasiko bagara ere, Lizarrako jaietan saio bat eginen dugu. Gonbidapena denoi luzatu nahi dizuegu. Askatu mingaina, primeran pasatuko dugu!

- **Eguna:**
  Abuztuaren 4a, larunbata, 12:00etan
- **Ordua:**
  Eguerdiko 12:00etan
- **Tokia:**
  Behe Nafarroa kalea
- **Ibilbidea:**
  Behe Nafarroa, Kale Berria, Santiago Plaza, Kaldereria, Foru Plaza, Izarra Kalea, Nabarreria, Inprenta kalea, Txapitel, Zapateria, Antso Ramirez, San Francisco Asis, Inmaculada, Behe Nafarroa.



Garean
Euskaldunon Elkartea



# Gora Lizarrako jaiak!

KOTARRO aldizkariaren ale berezia da hau. Lizarrako 2007ko jaien egitarau ofiziala, txosnena, Lizarra Ikastolarena, erraldoi eta buruhandien ibilerak... euskarazko eta euskal kulturarekin loturiko ekintzak azpimarraturik daude. Ongi ibili.

## Abuztuaren 3a, ortzirala

***HAMABI ORDUETAN*** Udaletxeko Balkoitik, ***SUZIRIA*** jaurtikiko da; Larraiza eta Ibai-Ega taldeetako dantzariek Larrain Dantzaren Jota Zaharra dantzatuko dute, eta Musika Banda, Txistulariak, Gaiteroak, errondailak, akordeoilariak, dantzari ohiak, kalejira alaitsuak jotzen eta dantzatzen ibiliko dira kaleetan zehar.

***12:15etan*** Foruen Plazan haurrendako "Japoniar Lehergailu" sorta.
***12:30etan*** Los Llanosko zubian, "CUCAÑA".
***13:00etan*** **Foruen Plazan, dantzari ohiek omenaldia "Iturrieta" gaiteroei Larrain-dantza.**
***13:00etan*** San Martin Plazan, VOCES NAVARRAS jota taldearen ekitaldia.
***16:30etan*** **Ospitale Zaharretik, ERRALDOI ETA BURU HANDIEN KONPARTSAREN irteera.**
***17:45etan*** Udal Gorenaren irteera bere segizio ofizialaz lagundurik.
***18:15etan*** Puy Birginaren Basilikan BEZPERA NAGUSIAK.
Haurrendako "Japoniar Lehergailu" sorta Puy-ko zelaian.
Jarraian ohiko PUYtik JAITSIERA.
***18:30etan*** Foruen Plazan, zirko-ikuskizuna SAMBHU taldearekin.
***19:00etan*** **Santiago enparantzan, "Garean" elkartearen mahai informatiboa eta kamiseten salmenta.**
***20:15-21:45*** Foruen Plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
***20:30etan*** BEHI IGOERA entzierruaren bidean zehar.
***21:00etan*** San Andrés eta La Bota peñen irteera Udaletxetik.
***22:00etan*** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa.
***23:00etan*** **Santiago Plazan, dantzaldia MODESTO taldearekin.**
***23:00etan*** Txosnetan, rock kontzertua, INSISTO, ARPAVIEJAS eta NEU BAT.
***24:00-1:00*** Foruen Plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.
***01:00eon*** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Udal Gaiteroekin. Jarraian, CHEra jaitsiera La Bota peñarekin.**
***1:45-3:45*** Foruen Plazan, dantzaldia POKER orkestrarekin.